

Luis Liz Marzánek jasoko du Italiako Kimikako Elkartearen 2021eko González-Ciamician saria

Italiako Kimikako Elkarteak (SCI) *González-Ciamician 2021* Alde Biko sari Espainiar-Italiarra emango dio Luis Liz Marzán CIC biomaGUNEko [BioNanoPlasmonics](#) taldeko eta [CIBER-BBN](#)ko ikertzaile nagusi eta Ikerbasque irakasleari, “lorpen handiak eta lan aitzindaria egin dituelako nanopartikulen sintesian eta mihiztatzean, nanoplasmonikan eta nanopartikulak erabiliz diagnostiko-sentsoreak eta -tresnak garatzen”.

Alde biko sariak herrialdeetako kimika-elkarteen arteko akordioetatik sortzen dira, bi herrialdeetako ikertzaileen arteko lankidetzak sustatzeko eta batzuen eta besteen jarduera modu osagarrian ezagutarazteko. Hain zuzen, Italiako hiru hiritako hiru unibertsitatetan hitzaldiak emateko gonbita da saria.

Liz Marzán irakaslearen iritziz, “sari guztiek dute balio berezia. Nire ibilbidean lankide italiar askorekin aritu naiz, eta lagun onak ditut han. Testuinguru horretan, Italiako Kimikako Elkarteak esatea sari hori jasotzeko merezimenduak egin ditudala aintzatespen bat da, lagun horiena eta haien komunitate zientifikoarena. Era berean, zenbait erakunde bisitatzeko aukera izateak zientziaz testuinguru desberdinetan aritzeko aukera ematen du beti”.

Aintzatespen horren aurretik, beste asko jaso ditu bere ibilbidean zehar, hala nola Sabatier sari frantziar-espainiar-katalana 2020an, Enrique Moles Ikerketa Sari Nazionala 2018an, Zientziako Dupont saria, Ikerketako Jaime I.a saria, Espainiako Kimikako Errege Elkartearen domina eta Ikerketa Biomedikoko Lilly saria.

Alde biko aintzatespen horien testuinguruan, CIC biomaGUNEk atseginez jakinarazten du datorren azaroaren 15ean, gure ikerketa-zentroan, RSEQk Italiako ikertzaileei ematen dien 2021eko espainiar-italiar saria emango diotela Marcella Bonchio irakasleari (Paduako Unibertsitatea). Sari honek agerian uzten du, beste behin, harreman bikainak daudela nazioarteko komunitate zientifikoan.